



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2023ko abendua

BERBA-LAPIKO

**Garapen metodologikoa ahozko
konpetentzietan aurrera egiteko**

Hedapena ikastetxeetan
eta Digitalizazioa



Proiektuaren Garapen Taldea:

Paula Laita Pallares – Soziolinguistika Klusterra

Agurtzane Azpeitia Eizagirre – Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) – *Zuzendaria*

Olatz Bengoetxea Manterola – Soziolinguistika Klusterra – *Koordinatzailea*

Sekuentzia Didaktikoaren lantaldea:

Leire Diaz de Gereñu Lasaga – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Ibon Manterola Garate – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Berritzegune Nagusiko Aholkulariak

Sustatzailea

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Soziolinguistika Klusterra

Txostenaren idazleak:

Paula Laita

Agurtzane Azpeitia

Olatz Bengoetxea

Soziolinguistika Klusterra Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain 943 592 556

<https://soziolinguistika.eus/eu/> kluster@soziolinguistika.eus

2023ko abendua



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziarekin zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

0 SARRERA	3
1 HEDAPENA IKASTETXEETAN	4
1.2 AHOLKULARITZARAKO PROZESUA ETA LANAK	5
1.3 IRAKASLEEN BALORAZIOAK	6
1.3.1 Metodologiaren inplementazioa.....	7
1.3.2 Metodologiak izandako harrera	8
1.3.3 Prestakuntza	9
1.3.4 Balorazio orokorra eta proposamen batzuk	10
2 DIGITALIZAZIOA	11
3 ONDORIO NAGUSIAK	14

0 SARRERA

2023. urtean Berba-lapiko proiektuan hiru ildo jarri dira martxan:

1. *Hedapena Ikastetxeetan*
2. *Ekintza-Ikerketa 3.0*
3. *Digitalizazioa*

Txosten honetan lehenengo eta hirugarren ildoari helduko zaie.

Berba-lapiko egitasmoa ARRUE programaren baitan kokatzen da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantziatutako dirulaguntzaren bidez. Egitasmoa Soziolinguistika Klusterrak abiatu zuen 2017-18 ikasturtean Mondragon Unibertsitateko HUHEZIren zuzendaritzarekin batera. EHUko ELEBILAB ikerketa-taldeak ere parte hartu du proiektuaren hasierako urteetan.

Berba-lapiko proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta konpetentzian sakontzeko proposamena dugu, batik bat testuinguru soziolinguistiko erdaldunei erreparatuko diena. Prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu nahi da, euskararen ahozko konpetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan, metodologia berriztatzean eta ikasleen garapen adierazleetan.

Jarraian, 2023an garatutako bi lan-ildoetan jorratutako lanak jaso dira:

1. **Hedapena ikastetxeetan:** Berba-lapiko aholkularitza eta jarraipena
2. **Digitalizazioa:** Berba-lapiko mundu digitalera eramatea

1 HEDAPENA IKASTETXEETAN

Hastapenetik, Berba-lapiko ikerketaren helburu nagusietako bat izan da eskuratutako ezagutza zabaltzea, hau da, hasierako bi ikastetxeetan lau urtez garatutako ikerketa horretatik ateratako ondorio eta ezagutza berria baliatzea antzeko egoeran dauden ikastetxeetan. Beraz, ildo horretan jarraitu da 2023an.

Hona hemen zabalkuntza estrategiari buruzko datu gako batzuk:

- 2022-2023 ikasturtean **33 ikastetxetan** abiatu da egitasmoa: Arabako Lehen Hezkuntzako 6 ikastetxe, Bizkaiko 17 eta Gipuzkoako 10 ikastetxetan. Horietako **16 ikastetxe berriak** izan dira.
- **3000 ikasle inguru** aritu dira **hiru hilabetez** ahozko tasuna modu jabetu batean lantzen.
- **140 irakasle prestatu** dira ahozko hizkuntza lantzeko oinarrietan. Aurten lehen aldiz, egitasmoa abiatu den ikastetxeetan LH1 eta LH2ko irakasle eta ikasleekin lan egin da; aurreko ikasturteetatik parte hartu duten ikastetxeetan, berriz, LH1, 2, 3 eta 4koekin jardun da.
- **Berritzegune Nagusiko 9 Aholkulariek** jaso dute prestakuntza. Gidaritza eta aholkularitza eskaini dute.

Egitasmoa ikastetxe berritean modu eraginkorren zabaldu ahal izateko, irakasleek jaso beharreko prestakuntza egoki diseinatu eta plazaratzea ezinbestekoa izan da.

Beraz, aholkularitza egituratzeko bi plano bereizi dira. Batetik, Soziolinguistika Klusterrak eta HUHEZIK osatzen duen lantaldeak aholkularitza eskaini dio Berritzeguneko teknikari taldeari. Bestetik, horietako teknikari bakoitzak ikastetxe batzuen ardura izan du, guk eskainitako aholkularitza hori ikastetxean bertan gauzatzeko hango irakasle-taldearekin. Gainera, Berritzeguneko teknikariak giltzarri izan dira SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA-HUHEZI lantaldeak ikastetxeetako egoeraren berri izateko, eta aholkularitzan zehar behar izan diren moldaketak eta egokitzapenak egiteko.

Zubi horiek ahalik eta eraginkorrenak izateko, etengabeko joan-etorrian proposatu da planoen arteko harremana. Alegia, ez da planteatu lehenbizi Berritzeguneko teknikariei aholkularitza osorik eskaintzea eta ostean haiek ikastetxera joatea irakasleak prestatzera. Horren ordez, Berritzeguneko teknikariei oinarri batzuk eskaini zaizkie, eta haiek oinarri horiek ikastetxean landu dituzte.



Horren ondoren, ikastetxeko prestakuntzaren deboluzioa egin diote SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA-HUHEZI taldeari, eta taldeak materialaren inguruko

prestakuntza eman die Berritzeguneko teknikariei, haiek gauza bera ikastetxean egiteko. Era horretako etengabeko joan-etorrietan proposatu da aholkularitza, gure prozesu guztia Berritzeguneko teknikarien zein ikastetxeko irakasleen beharretara egokitu ahal izateko.

1.2 AHOLKULARITZARAKO PROZESUA ETA LANAK

Hiru fase nagusi nabarmendu dira prozesuaren antolaketan.

0. FASEA 2022eko udazkenean	URRATSAK
<ul style="list-style-type: none"> o Antolaketa eta koordinazio-lanak burutu. 	<ul style="list-style-type: none"> o Berritze Nagusiko Aholkulariekin (BNA) talde bat sortu. o Proiektuaren eta ikasturte honetako planteamenduari berri eman. o Parte-hartzaileen aukeraketa.
1. FASEA Aste Santu aurretik	URRATSAK
<ul style="list-style-type: none"> o Bi prestakuntza saio: <ul style="list-style-type: none"> 1. saioa: ahozko hizkuntzaren oinarriak. 2. saioa: hizkuntza errutinen gakoak. o Jarraipen bilera bat. 	<ul style="list-style-type: none"> o SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA-HUHEZI taldeak → BNA-ak prestatu. o BNAek → irakasleak prestatu. o SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA-HUHEZI taldeak + BNA-ak jarraipen bilera
2. FASEA Aste Santu ondoren	URRATSAK
<ul style="list-style-type: none"> o Prestakuntza saio bat: material didaktikoa inplementatzeko gakoak. o Material didaktikoaren inplementazioa eta jarraipena. 	<ul style="list-style-type: none"> o SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA-HUHEZI taldeak → BNA-ak prestatu. o BNAek → irakasleak prestatu o Eskoletan inplementazio lanak hasi. o Jarraipen saioak: SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA-HUHEZI taldeak ↔ BNA-ak → irakasleak o Grabaketak burutu.
3. FASEA Ikasturte amaieran	URRATSAK
<ul style="list-style-type: none"> o Esperientziaren balorazioa: prestakuntza prozesuaren gainean eta erabilitako materialaren gainean. 	<ul style="list-style-type: none"> o Balorazio-saioak: SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA-HUHEZI taldeak ↔ BNA-ak → irakasleak.

Berritzeguneko teknikariek ikastetxean erabili duten materiala guk prestatu dugu, haien lana errazteko. Horrela, bai ahozko hizkuntzaren didaktikaren oinarriak, bai materiala inplementatzeko metodologiak eta baliabideak eskaini zaizkie teknikariek saioz saio, eta haiekin landu direnak izan dira gero beraiek ikastetxeetan landu behar izan dituztenak.

Prestakuntza prozesu hau behar bezala egituratzeko, honakoak dira bete diren lanak.

- 0. fasean:
 - 1) Antolaketa eta koordinazio-lanak burutu: taldeak osatzeko irizpideak markatu, talde ezberdinak koordinatu, ikastetxeen aukeraketa egin, datak jarri eta harremanetarako bideak sortu behar izan dira. Era berean, arduren banaketa ere antolatu da.
 - 2) Prestakuntza-prozesua diseinatu: saioen denboralizazioa, helburuak nahiz materialak. Materialetan, guk teknikariek erabilitakoak nahiz teknikariek ikastetxeetan behar izan dituztenak prestatzea izan da helburua.
 - 3) Diseinatutako prestakuntza sozializatu partaide izan diren teknikariek. Era berean, sozializazio-saio hori prestakuntzan zehar baliatu den metodologia kontrastatzeko ere baliatu da.
- 1. fasean: prestakuntza saioak gauzatu ditugu, bai guk teknikariek bai teknikariek ikastetxeetan.
- 2. fasean: jarraipen saioak egin ditugu, aholkularien nahiz irakasleen prestakuntzari buruzko zalantzei, zailtasunei, kezkariei edota kasuistika ezberdinei irtenbidea ematen laguntzeko.
- 3. fasean: ebaluazio-bideak diseinatu eta prestatu ditugu. Ondorioz, ikastetxe gehiagotara zabaltzeko nahiz plataforma digitalean jartzeko formazio-pilulak eta materialak egokitu dira balizko oztopo horiei erantzuteko.

1.3 IRAKASLEEN BALORAZIOAK

2022-23 ikasturtearen amaierarekin batera, ekainean proiektuan parte hartu duten irakasleen balorazioak jaso dira. Hona hemen prozesu horren zenbait datu:

- Balorazio prozesuan **81 irakaslek** hartu dute parte. Metodologian aritu direnek **inkesta** bat bete behar izan dute online (74 irakaslek). Ikerketan parte hartu dutenei **aurrez aurreko elkarrizketa** egin zaie haien balorazioa modu zehatzagoan jasotzeko (7 irakasleri). Kasu honetan, landuko diren gaiak aurreratu zaizkie haiek alde aurretik hausnartzeko tarte izateko eta ebaluazioa ahalik eta sakonena eta osatuena izateko. Saioak 45 minutu ingurukoak izan dira, eta audioz grabatu dira.
- Balorazioaren **helburua** hauxe izan da: Berba-lapikoko errutinen esperientziaren amaierara iristear egonda, **irakasleen ahotsak jaso** eta benetan egindako prozesuaz eta ibilbideaz pentsatzen duten hori gurekin partekatzea, esperientzia nola bizi izan duten jakiteaz gain, aurrera begira hobekuntzak egiteko. Horretarako, hurrengo alderdietan jarri da fokua:
 - Metodologiaren inplementazioan
 - Metodologiak izandako harreran, bai irakasleengandik, bai ikasleengandik

- Irakasleek metodologia ikasgelan inplementatzeko jaso duten prestakuntzan
- Proiektuaren balorazio orokorrean eta datorren urteari begirako proposamenetan

Irakasleen balorazioak behin jasota eta hustuketa eginda, corpusaren analisi bai kuantitatiboa bai kualitatiboa egin da. Jarraian, horren analisiaren emaitzak eta ondorio orokor batzuk jaso dira.

1.3.1 Metodologiaren inplementazioa

Metodologiaren inplementazioari buruz, irakasleek hurrengo ekarpenak egin dituzte.

- **Metodologiari eskainitako tartea eta ordutegia aldakorak izan dira.**

Metodologiari eskainitako batez besteko denbora 20-45 minutukoa izan da. Irakasle batzuek luzatu egin dituzte saioak. Horren arrazoiak hauek izan dira: ez dute material guztia erabiltzeko astirik izan; umeak oso gustura aritu dira; umeen kopurua handia izan da eta guztiek ekoizteko aukera eman nahi izan dute.

"Zuk ikusi dituzun [grabaketetan] azken saioak oso motzak dira, baina hori da emaitza [...] Nik 24 eta honek 22 ikasle, saioak hiru ordu laurdenekoak, saio osoa [...] Ez ziren aspertzen, 20 minutu gutxiegi da hainbeste ikaslerekin [...]" (C ikastetxea, LH1).

Beste irakasle batzuek kontrakoa sumatu dute; saioa luzatu denean, "umeak kontzentrazioa galdu dute, eta aspertu egin dira" (B ikastetxea, LH1):

"Ezin naiz egon ordu erdi gauza bera egiten, nire taldeak behar dituen gauzak dira berehala, 15-20 minutukoak asko jota, badituzte ume batzuk zailtasun handiekin" (A ikastetxea, LH1).

Ordutegiaren aldetik, kasu batzuetan euskara saioa erabili da. Beste batzuetan "lehen orduan" (B ikastetxea, LH1) eta "beti ordu berean" (A ikastetxea, LH1) egin dute; edo beste batzuetan, arratsaldean. Gela batzuetan, egunaren ordutegiaren eta "ikasleen giroaren arabera" moldatu dira (C ikastetxea, LH1).

- **Maila guztietan, materialak egokiak, argiak eta dinamikoak izan dira irakasleentzat.**

Egokitzapen zehatz batzuk egitea proposatu arren (2.4), orokorrean, irakasleen ustez, saio bideratuak izan dira eta materiala ondo antolatuta eta "oso dinamikoa" eta "argia" izan da (C ikastetxea, LH1). Haien ustez, materialak lagundu egin die "begirada zentratzen gauza gutxitan eta horiek lantzen" (B ikastetxea, LH1). Hona hemen materiala deskribatzeko erabili diren hitz batzuk: "aproposa", "erabilgarriak", "lanaren oinarria", "saioa aurrera eramateko euskarria", "ideiak", "ereduak", "oso zehaztuta eta markatua".

- **Oztopo nagusia denbora falta izan da.**


Irakasleek aipatutako zailtasunen artean, denbora falta izan da oztopo nagusia: "Berba-lapiko non txertatu" (F, LH2)", ordutegia berean egitea (C, LH1), prestaketa egiteko denbora nondik hartu (G, LH1; H LH2) eta material guztia inplementatzea (I, LH1). Beste batzuk ikasleen aniztasuna (J, LH1; A, LH1) eta oso hizkuntza maila

baxua (B, LH1; K, LH1, L, LH4) edo oso altua, ikasle batek komentatzen duen bezala (C, LH1). Batzuk ikasleen arreta (M, LH1; N, LH1) eta parte hartzea ere izan dituzte (O, LH1) erronka. Familiaren inplikazioa ere aipatu dute, batzuetan zailtasun bezala, baina beste batzuetan alde ona bezala, izan ere, Berba-lapiko metodologiak familiaren inplikazioa sustatzen du eta, irakasle batzuen ustez, hori lortu egin da.

1.3.2 Metodologiak izandako harrera

Oro har, metodologiak **harrera ona** izan du. Irakasleei erakargarria eta dinamikoa iruditu zaie, eta ikasleak ere gustura aritu dira.

Hurrengo diagraman, metodologiari emandako puntuazioaren emaitzak jaso dira. Ikusten den bezala, %80,7ak 4 eta 5 puntu eman dizkio metodologiari.



Jarraian, metodologiaren harrerari buruzko pertzepzioak jaso dira.

- **Metodologia ondo hartu dute irakasleek.**

Metodologia erakargarria eta dinamikoa iruditu zaie irakasleei: *"inplementazioak ahozkotasuna lantzeko sistematizazioa ekarri du"* (A, LH1) eta hori *"beharrezkoa zen"* (B, LH1).

- **Ikasleak ere gustura aritu dira. Parte-hartzaile aktiboak bihurtu dira.**

Irakasle gehienek arabera, ikasleak oso gustura aritu dira eta *"haien euskararekiko hizkuntza ohiturak"* aldatu dira (F, LH1, LH2). Hasieran zaila egin zaie, baina gero askatu dira eta *"pozik egon dira"* (A, LH1). Ariketa batzuk asko gustatu zaizkie: desberdintasunei buruzko ariketa eta eskularruaren istorioa, besteak beste.

Metodologiak ikasleen rola aldaketan ere eragin du: protagonista izatera pasa dira (O, LH1). Hitz egiteko denbora gehiago eskaini zaie eta parte hartzaile nagusiak bihurtu dira saioetan. Ikasleak *"irrikitan"* zeuden (P) eta *"Berba-Lapiko eskatzen zuten"* (R, LH3).

- **Metodologia eraginkorra izan da: irakasleek hobekuntza sumatu dute ikasleen ahozko ekoizpenetan eta ikasleen hizkuntzarekiko jarreran.**

Ikasle batzuen arabera, *"nabaritu da aldaketa"*; izan ere, kasu gehienetan, aurrerapena ikusi dute ikasleen ahozko ekoizpenetan: alde batetik, *"hizkuntzarekiko jarreran hobekuntza ikaragarria izan da"* (F, LH2; S, LH2); eta beste alde batetik, testuaren egituran (antolatzaileak), estrukturetan, eta jarioan hobekuntza ikusi dute. Berba-lapikotik kanpo ere txertatu dute langai izan den edukia (C, LH1; B, LH1). Hiztegian, ordea, ez dute aurrerapen handirik ikusi: *"batzuetan hiztegi falta itzela da, orokorrean"* (A, LH1).


Maila baxua dagoen ikastetxeetan, ikasleak orain *"kontzienteagoak dira", eta [...] txertatu dituzte ikasitako gauzak, [adibidez,] hasi dira lehenaldia ere erabiltzen", "deklinabidea" ere "non eta abar" erabili dute* (B, LH1). Maila altuagoa dagoen ikastetxe batean, ordea, *"erraza egin zaie" eta "eroso" ibili dira*. Dena den, ikastetxe horretan ere hobekuntza ikusi da eta ikasitakoak Berba-lapikoko eremutik kanpo ere erabili dituzte: *"[landutako alderdi] asko barneratu dituzte, eta polita izan da asteburuko istorioak kontatu dituztenean agertu direla"* (C, LH1).

- **Ikasleek hasieran azaldutako zailtasunak denborarekin gainditu dituzte.**

Ikasleek sumatu dituzten zailtasun nagusiak izan dira beste ikaskideen edo kameraren aurrean hitz egiteko lotsa, beldurra eta urduritasuna. Dena den, denborarekin hitz egiteko konfiantza handiagoa sortu dute. Bestalde, hiztegi eta beste hizkuntza baliabide batzuen ezak ere trabak egin dizkie: *"oraindik hiztegi urria [dute], gehiago landu behar da"* (C, LH1).

1.3.3 Prestakuntza

Oro har, **jasotako prestakuntzaren balorazioa ona** izan da. Hurrengo diagraman, prestakuntzari emandako puntuazioaren emaitzak jaso dira. Ikusten den bezala, %80,8ak 4 eta 5 puntuko nota eman dio prestakuntzari.



- **Irakasleek ahozkoa lantzeko eta zuzentzeko estrategiak, ideiak eta dinamika berriak bereganatu dituzte.**

Irakasleen ustez, prestakuntza *"lagungarria"* izan da. *"Ahozkotasuna lantzeko estrategiak"* lortu dute eta *"begirada aldaketa bat"*; *"kontzienteago zuzentzen dute"* eta *"zuzenketa gutxi egiten"* ikasi dute.

- **Irakasleei aholkulariek eskainitako laguntza eta jarraipena sakona, zehatza eta gertukoa iruditu zaie.**

Irakasle gehienak oso pozik hartu dute jasotako prestakuntza eta aholkularien prestutasuna:

“Prestatzaileekin oso gustura egon naiz. Jantziak ikusi ditut eta aurrera egiten eta motibatzen lagundu digute” (T, LH1).

“Beharrekoa nuen guztia prest zegoen eta ondo azalduta. Momentu batean link batekin arazoak izan nituen baina korreo bat bidali eta berehala eman zidaten konponbidea” (C, LH1).

1.3.4 Balorazio orokorra eta proposamen batzuk

Irakasleei prozesuan zehar nola sentitu diren azaltzeko eta balorazio orokorra egiteko eskatu zaie, eta hauek izan dira erantzunak.

- **Nahiz eta hasieran urduri sentitu, irakasleak gero eta gusturago aritu dira metodologian.**

Irakasle batzuentzat prozesua gorabeheratsua izan da. Metodologia aplikatzeko zailtasunak aurkitu arren, orokorrean, gustura azaldu dira, eta ikasteko aukeratzat hartu dute proiektua. *“Hasieran agobiatuta”* eta urduri sentitu dira baina *“gero, gustura”* aritu dira (A, LH1):

“Berriak gara eskola honetan, eta izan zen iritsi eta dena berria, eta gero gainera Berba-Lapiko proiektua ere ez genuen ezagutzen. Gorabeheratsua izan da ze nahikoa genuen gure lan taldea eta metodologia aurrera eramateko, eta bat-batean hori ere bagenuen. Behin sartuta ongi joan da [...]” (C, LH1).

“Hasieran guztiz lanpetuta, guztiz agobiatuta [...] gero jada behin martxan jarrita eta hobeto ezagututa errazago egin zitzaigun” (B, LH1).

- **Orokorrean, irakasleek balorazio positiboa eman diete metodologiari eta proiektuari. Gehienek datorren urtean jarraitu nahi dute proiektuan.**

Nahiz eta proiektuak lan karga handiagoa ekarri duela aitortu, metodologiari buruzko irakasleen balorazio orokorra positiboa izan da. Haien ustez, *“komenigarria da egunero izatea denbora ahozkotetasuna lantzeko”* (A, LH1), eta Berba-lapikok hori eskaintzen du. Hortaz, gehienek (%84) datorren urtean jarraitzeko interesa azaldu dute.

- **Irakasleek hainbat proposamen egin dituzte, bai materialei bai antolamenduari dagokionez. Irakasleen iritzia aintzat hartu dira eta 2024an ziklo berrian egokitzapenak egiteko erabiliko dira.**

Materialei dagokionez, oro har, irakasle gehienek hiztegia gehiago landu behar dela uste dute. Irakasle batzuen arabera, materialak errazegiak dira maila altua dutenentzat; edo beste kasu batzuetan, materialak ikasleei urrunegi geratu zaiela aipatu dute. Antolamenduari dagokionez, irakasle gehienei metodologiaren implementazio fasea aurreratzea gustatuko litzaieke.


2 DIGITALIZAZIOA

Hedapenarekin batera, ezinbestekoa iruditu zaigu maila digitalean salto kualitatibo bat ematea. Egun, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) tresna indartsuak ditugu jakintza sustatzeko, ez soilik ikasleentzat, baita irakasleentzat ere. Beraz, arlo digitalari garrantzia eman nahi izan zaio, proiektua bera eta honen eragina zabaltzeko asmoz, funtzionamendu autonomo bat bultzatuz. Hau da, hezkuntza komunitateko edonork aparteko aholkularitzarik gabe Berba-lapiko egitasmoko metodologiak inplementatzeko aukera izatea.

Xede hori lehenetsita, jarraian jaso dugu, 2023an egindako bidea:

- **Plataformaren izaera adostu**

Hedapenaren lanetako bat euskarria sortzea izan da. Horretarako, lehenik euskarriaren funtsa eta izaera argitu behar izan dira. Beheko irudian jaso dira erabakitako hainbat alderdi garrantzitsu.



Formatuari dagokionez, Hezkuntza Sailak aukeratutako ereduari jarraitu diogu, hau da, edukia LAUSAKA antolatuta egongo da. **Tutorizatze maila** erdibideko zerbait izango da: hau da ez da ez guztiz tutoriztua ez guztiz autonomoa izango: "Sinkro" eta "asinkro" moduko jarduerak egongo dira; nahiz eta irakasleek modu autonomo batean eta haien kabuz ikastaroa egin, aholkulariekin ere elkartuko dira saio batzuetan, landutako edukia barneratzen laguntzeko. **Komunikatzeko aukera desberdinak** egongo dira: albisteak, abisuak, arazo teknikoen berri emateko guneak, egutegia data garrantzitsuekin, mezuak zuzeneko harremanetarako, foro bat beste irakasleekin irakasleak partekatzeko eta abar.

Estrukturari dagokionez, lau sekzio edo atal egongo dira:

- 0 FASEA: Ikastaroa aurkeztuko da.
- 1 FASEA: Ahozko hizkuntza lantzeko ezinbestekoak/oinarrizkoak diren alderdiak landuko dira.
- 2 FASEA: Berba-lapiko proiektuko metodologietako bat landuko da: Hizkuntza-Errutina. Metodologia aurkeztu eta material didaktikoak banatu eta eskuztutzen hasiko da hartzailea. Tartean material didaktikoak patxadaz irakurriko dituzte irakasleek. Jarraipen bilera bat egingo da beraiekin. Behin metodologia eta material didaktikoa ezagututa, materiala gela barruan inplementatzeko zenbait gako landuko dira, hau da, ikasleekin elkarrekintza-estrategiak landuko dira.
- 3 FASEA: Amaierako galdetegia ikastaroaren edukiei buruz eskatuko dugu eta, amaitzeko, irakaslearen balorazioa jasoko dugu.

0 eta 1 faseak irakasle guztiek egingo dituzte (ikastaroaren aurkezpena eta prestakuntza orokorra) eta 2 eta 3 faseetan bideak sakabanatuko dira eta irakasle bakoitzak bere mailako materiala landuko du.

Edukiaren antolamendua Hezkuntza Sailak baliatu duen estrukturan oinarritutakoa da. Hiru zeregin mota egongo dira: **edukia** (ad. bideo pilulak, testu bat, aurkezpen bat); **zeregina** (edo atazak, ad. egin behar dituzten ariketak); eta **metakognizioa** (landutakoari buruzko hausnarketa-ariketak ikasitakoa barneratzeko).

Taula honetan ikastaroaren edukia laburbildu da, fasez fase:

FASEA	GAIA	EDUKIA	ZEREGINA	METAKOG.
0 FASEA <i>Ikastaroaren aurkezpena</i>	Ongi etorri Berba-lapikora!	x		
	Ikastaroaren aurkezpena	x		
	Proiektuaren kokapena	x		
1 FASEA <i>Ahozkoa lantzeko prestakuntza orokorra</i>	Hizkuntza mundua ikusteko modu bat	x		
	Hizkuntzak irakasteko ikusmoldeak		x	
	Ikuspegi soziodiskurtsiboa	x		x
	Egoera komunikatiboak	x		x
	Ikasleen ahozko ekoizpenak			x
	Ahozkoaren azterketarako irizpideak			x
2 FASEA <i>Metodologiaren aurkezpena eta materialak mailaz maila</i>	Hizkuntza-errutina metodologia	x	x	x
	Irakaslearen eredua	x		x
	Material didaktikoak	x		
	Hizkuntza betaurrekoak		x	x
	Gelako aniztasuna eta praktikak		x	
	Elkarrekintza	x	x	x
	Metodologia gelan			x
	Aurretestua eta ondotestua		x	
3 FASEA <i>Amaiera</i>	Ikastaroaren galdetegia		x	
	Ikastaroaren balorazioa		x	
	Ikastaroaren agiria		x	

*Berdez dauden zereginen prestaketa hasita dago.

- **Lanen aurreikuspena eta antolamendua**

Lan-ildo horri lotutako eginkizun orokorrak zehaztu dira eta lan batuk martxan daude. Alde batetik, edukia lantzen hasi gara, eta beste alde batetik, **talde bat osatzen ari gara**. Alderdi digitala lantzeko, garrantzitsua da Hezkuntzan dabiltzan aholkularien ikuspegia ere txertatzea. Hori dela eta, hasieratik taldetxo bat sortzea irudikatu da, diseinu eta erabaki didaktikoetan aholkularien esperientzia eta ekarpenak jasotzeko. Uztailean bilera bat egin zen eta adostu zen Berritzegune Nagusiko aholkulari batekin lantaldean egotea, erabakiak elkarrekin hartzeko.

Aurrera begira, 2024an ildo honekin jarraitzeko gai hauetan sakonduko da:

- **Moodle ikastaroaren errelatoa lantzen** jarraituko da: erabiltzaileak modu autonomoan baliatzeko tresna izango denez, garrantzitsua da ibilbide edo "errelato" hori ondo diseinatzea. Eta martxan gaude horretan.
- **Lantaldea finkatuko** dugu eta **elkarlanean** arituko gara.
- **Materialetan egokitzapenak egiten** ere jarraituko dugu: Material didaktiko horiek sarean jartzeko eta erabiltzeko egokitu behar dira.
- **Material didaktikoen maketazioa** ere egin beharko da: Sarean jarri ahal izateko maketatzailer profesional batek edukiak jorratzea garrantzitsua da. Era horretan, material didaktiko guztiek irizpide berberak betetzea bermatuko da, baita estetikoki ere.

3 ONDORIO NAGUSIAK

Jarraian jaso dira 2023an egindako lanetatik ateratako ondorio nagusiak:

- **Hedatze prozesua arrakastatsua izan da:** 2023an parte hartu duten ikastetxe gehienek datorren ikasturtean jarraitzeko gogoia adierazi dute. Balorazioei esker identifikatu dira arrakasta izateko ezinbestekoak izan diren zenbait osagai: irakasleekiko gertutasuna, bereziki, Berritzegune Nagusiko Aholkularien laguntza; hasieratik ikastetxeekin adostutako antolaketa bete izana; gaiari jarraipena emateko aukera eskaini izana.
- **Talde-lanaren beharra eta eraginkortasuna agerikoa izan da, beti ere prestakuntza ardatz izanik:** proiektuaren hedapen fasean *Berba-lapiko taldea-BNA-irakasleak* taldearen funtzionamendua eta kohesioa giltzarri izan dira. Are gehiago, talde honi esker prestakuntzak hartu duen indarra eta izaera azpimarratu beharra dago.
- **Berba-lapikori buruzko balorazio positiboa egin dute:** hasierako denbora faltari buruzko zailtasunak gaingitu dituzte, eta orokorrean gustura aritu dira irakasleak zein ikasleak. Irakasleen arabera, ikasleek "benetan komunikatu beharra" sentitu dute, eta ahoz sortzen eta gozatzen ibili dira.
- **Irakasleek Hizkuntza-Errutinen metodologia eraginkorra dela berretsi dute:** alde batetik, metodologiari esker, ikasleek ahozko maila hobetu dute eta estrategia berriak irabazi dituzte. Hizkuntzarekiko jarreraren ere hobekuntza sumatu dute.
- **Irakasleek ahalduntzeko pauso bat gehiago eman da:** proiektu honetan irakasleen prestakuntzak garrantzi handia izan du. Balorazioari esker ikusi da, irakasleek ikaste-objektuak argiago identifikatu dituztela, ahozkoa lantzeko eta zuzentzeko estrategia berriak eskuratuz. Irakasleek, "hizkuntza-betaurrekoak" findu dituzte bidean, eta horrek segurtasuna eman die, adierazi dutenez.
- **Era berean, bai prozesuari eta material didaktikoari begira hobetzeko alderdi batzuk jaso dira:** irakasleek proposatutako aldaketak datorren urtean kontuan hartuko dira.